

2017KO HEGO EUSKAL HERRIKO AURREKONTUEN IRAKURKETA KRITIKO BAT ETXEBIZITZA ARLOAN

2017KO AURREKONTUEK, HUTSALAK IZATEAZ GAIN, ALDERDI POLITIKOEN ALDARRIKATZEN DITUZTEN HELBURUEI EZ DIETE EUSTEN BERRIRO ERE. ETXEBIZITZA ERABILERA ESKUBIDEA? ESKUBIDE UKATUA DA, GUZTIZ ANTISOZIALAK DIREN AURREKONTUAK ONARTZEAN

Aurrekontuak tresna nagusiak dira aberastasuna banatzeko, eta baita pertsona guztiei duintasunez bizitzeko behar dituen gutxieneko materialak bermatzeko ere. Horregatik, ezin ditugu utzi botere kapitalistaren eta haren alderdien esku aurrekontuen gaineko erabakiak. Eta gainera klase politikoak, erabateko lotsagabetasunez, ez du ezta esaten duena betetzen. Gobernuetatik aurrekontuak ahal diren bezain sozialak direla adierazten digute; errealitateak berriz, Hego Euskal Herriko instituzio publikoek gastu sozial zuzenera bideratutakoa pixkanaka hondoratzen doala erakusten digu.

Zorraren pisua handitzeak hurrengo hamarkada osoaren benetako jendarte gastua baldintzatzea dakar, non kupoak eta konbenioak, zorra ordaintzeak eta arlo publikoaren jarduera burokratikoek ia bildutako diru osoa eskuratuko baitute. Departamendu desberdinei bideratutako aurrekontu-sailetan murrizketek jarraitzen dute “krisi” garaioan. Izan ere, 2017an Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Gobernuaren Etxebizitza Kontseilariordetzaren gastua (langile eta Administrazio Publikoaren funtzionamendu gastu guztiak barne) 121,67 milioi eurotako da, 2009an 217,40 milioi izan zenean, hau da, **2009an baino 95,70 milioi gutxiago**. Nafarroan 2017an 53,90 milioi euro bideratu dira, 2008an 273,88 milioi bideratu zirenean, hau da, **219,98 milioi euro gutxiago**.

Hala ere, obra “faraonikoak” egiten (AHTa, SuperHegoa, SuperPortua, ...) jarraitzen dute, zenbaiten poltsikoak betetzeko. Adibide esanguratsu bat: 2010 eta 2018 urteen artean, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoak AHTri bideratutako aurrekontua 2.570,74 milioikoa da. 2.570 milioi hauek 2017an Etxebizitza Kontseilariordetzara bideratutako 121,70 milioiekin alderatuta, argi ikusi dezakegu AHTk 8 urtetan etxebizitzak 21 urtetan jasotzen duena bezain beste dela. Nafarroan beste horrenbeste.

ALOKAIRU SOZIALEKO PARKE PUBLIKO BAT SORTZEKO EZINTASUNAREN ETA/EDO BORONDATE FALTAREN AURREAN, ALOKAIUAREN PRIBATIZAZIOAREN ALDEKO APUSTUA EGITEN DA

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 2017ko Aurrekontuen Memorian eta Nafarroako Gobernuak publiko egindako hainbat dokumentutan lehentasuna, erosketaren aurrean, alokairua sustatzea dela adierazten da, baina publikoa ala pribatua? Oraintxe ikusiko dugu.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan alokairuaren presentzia murrizta izaten jarraitzen du. Biztanleriaren %12,3 bizi da alokairuan (Bizi Baldintzen Inkestatik ateratako azken datuen arabera), Europar Batasuneko %29,4ko bataz bestekotik oso urrun.

Etxebideko eskatzaileen datuei erreparatuz gero, konturatuko gara azkeneko urteotan etxebizitzara heltzeko alokairuaren garapena nabarmentzekoa dela. 2016ko 3. hiruhilekoaren datuek adierazten dute eskatzaileen %81,4k alokairua hautatu zutela, %18,6k berriz erosketa. Egoera berdina da Nafarroan.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 2017ko Aurrekontuen Memoriak dio 2017 Etxebizitza programak (oraindik publikoa ez dena), Etxebizitza legetik eratortzen diren hurrengo bi erronka nagusiei heldu nahi diola:

"Lehenengo helburu estrategikoa alokairu parkearen presentzia handitzean datza, etxebizitza beharrak asetzeko formula gisa.

Bigarren helburu estrategikoa hiri birgaitze politika sendo bat martxan jartzean datza; konponbide eraginkorra, sostengarria eta etorkizunari begira dagoena."

Baina hau guztia urteak daramatzate esaten eta ez dute betetzen. 2013-2016 Etxebizitza Plan Gidatzailean salmentarako 8.650 etxebizitza (4.050 BOE edo/eta tasatuak eta 4.600 sustapen publikorako) eta alokairura 3.950 (horietatik 900 erosteko aukerarekin) aurreikusten zen. Horri deitzen al diote alokairua sustatzea?

2016ko ebaluazioa oraindik publiko egin ez duten arren, 2013ko ebaluazioan hurrengo irakurri daiteke: *"2013ko ekitaldian ezin izan da alokairuzko etxebizitza babestuaren eraikuntzaren helburu orokorra bete ... finantziario eskakizun altuek alokairu babestuko proiektu berriak martxan jartzea galarazi dute"* (2010-2012 betetze gradua %42,9koa izan zen). Bitartean, salmentarako bideratutakoen helburuak bete bakarrik ez eta gainditu ziren (2010-2012 betetze gradua %116,60koa izan zen). Berrito galdetzen dugu, eta horri deitzen al diote alokairua sustatzea?

Beste neurri bat saldu gabeko eta eraikita zeuden babestutako etxebizitzak alokairu babestura bideratzea zen. Pasa den azaroan, Gasteizeko hainbat kolektibo sozialek neurri hori ez zela bete argitara eman zuten: hutsik zeuden 464 etxebizitza publiko salmentan (VISESA) zeudela salatu zuten.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 2017ko Aurrekontuen Memorian ere irakurri dezakegu:

*"Etxebizitza Legeak adierazten du, hiri birgaitzera bideratutako bitartekoak alde batera utzita, **bitarteko publikoen soberakinen** %80a etxebizitza arloan alokairura bideratu behar direla. Era berean, erakunde publikoek eraikitako babes publikoko etxebizitza berriak alokairuan izan behar dute. 2017ko etxebizitza programaren programazioak baldintza hauek hertsiki betetzen ditu."*

Alde batetik, adierazi dugun bezala, aurreko Plan Gidatzailearen balorazioa irakurtzea besterik ez dago asmo horiek hutsalak direla konturatzeko.

Beste alde batetik, aurreko paragrafoko testuak erakusten du ez dakitela zenbatekoa izango den alokairuaren sustapenera bideratutako aurrekontua; **zeren edo zenbateko soberakina?**

Hurrengo paragrafoan benetako helburuak agertzen dira; atal honen bidez salatu nahi duguna hain justu:

"Baldintza eraginkorrei begira, alokairura bideratutako partikularren etxebizitzaren eskaintzarako apustu eta bitartekoak areagotzen dira, merkatu bitartekaritzarako Bizigune eta ASAP bezalako tresnek etxebizitza hutsten stock-a mugiaraziz; ostatu hornidura eta alokairura bideratutako etxebizitza babestu berrien eskaintza sendo xamarra sustatzen dela ahaztu gabe."

Areagotu? Zer? Diru publikoa esku pribatuetara joatea da areagotzen dena. NASUVINSAk Nafarroan eta Etxebidek Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan euren etxebizitzak alokatzen dituzten etxe hutsten jabeen hilean Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan 450€ eta Nafarroan 550€ ziurtatzen die. Gainera, segun eta programa zein den, beste abantaila batzuk izan ditzakete: birgaitzerako laguntzak, aseguruak...

Errenta datu hau (esku pribatuetan) Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan etxebizitza libre bat alokatzeko etxebizitza beharra duten pertsonen bideratzen zaien 250€ko prezio maximoaren (EPO edo Etxebizitza Prestazio Osagarria) oso desberdina da.

Nafarroari dagokionez, eta pasa den urrian Elkartzenetik salatu genuen bezala, Etxebizitza Legeari egindako aldaketek kasu gutxi batzuk konponduko dituzte, baina ez du pertsona guztion etxebizitzarako sarbide eskubidea lagunduko. Izan ere, aldaketak funtsean **Eraikuntza enprekin egindako akordio** batean oinarritzen dira; etxebizitza berriak eraikitze eta babestutako alokairua sustatzeko akordioa. Alde batetik, alokairuaren prezioa ez dago beharra duten pertsonen ordaindu dezaketen errentan oinarritua; aldiz, m²-en murrizketan oinarrituta dago. Eta beste alde batetik, etxebizitzaren jabetza ez da Administrazio publikoaren eskuetan geratzen, babestutako etxebizitzaren sustapenak diru publikoarekin lagunduko badira ere. Zergatik ez da diru publikoa Alokairu Sozialeko Etxebizitza Parke Publikoa sortzeko edo sortzen hasteko bideratzen?

Gainera, Sareb-ek Nafarroako Gobernuari 30 etxebizitza 6 urteetarako uztea aurreikusten duen akordioa garaipen bat bezala saltzen digute, apurrak besterik ez direnean. Sareb-en jabetza diren milaka etxebizitza hasieratik publikoak izan beharko lirake; izan ere, Sareb sistema finantzarioa "garbitzeko" diru publikoa erabiliz sortu zen, hau da, gure diruarekin. Ez soilik 30, Sareb-en etxebizitza guztiak Alokairu Sozialeko Etxebizitza Parke Publikoaren parte izatera igaro beharko lukete.

AZKEN URTE HAUETAN ETXEBIZITZA ESKURATZEKO ARAZOA AREAGOTU BADA ERE AURREKONTUETAN ETXEBIZITZARA BIDERATUTAKO DIRU KOPURUA MURRIZTU DA. DATUEK HALA DIOTE

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan 2017an etxebizitzara bideratutako diru kopurua 2009an bideratu zenaren erdia baino pixka bat gehiago izango da, hau da, 95,70 milioi euro gutxiago zuzenduko dira.

2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
217,40	182,60	123,00	146,20	125,65	107,10	99,80	108,90	121,70
%0,33	%0,27	%0,18	%0,22	%0,19	%0,16	%0,14	%0,15	%0,16

Iturria: Eustat (Gastu publikoa Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan etxebizitza arloan, milioi eurotan eta BPGren %tan)

Ezin izan dugu Nafarroako urtez urteko inbertsio honen garapena jaso baina 2008ko datua ezagutzen dugu. Orduan 273,88 milioi euro bideratu ziren, beraz aurten 2008an baino 219,98 milioi euro gutxiago destinatuko dira.

Murrizketa horiek gutxi balira 2018rako Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan Etxebizitza Legeak aurre eginez gero EGPO (etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria) desagertzeko mehatxuak bere horretan jarraitzen du. Honek alokairurako laguntzak eskuratzeko mugatze handia ekarriko luke.

Horrela izanda, 2017ko aurrekontuetan irakur daiteke:

“18/2008 Legean Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarriako, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta Inkluzio sozialerako aurreikusitako erregimena, 3/2015 Etxebizitza Legearen 9.artikuluan aurreikusitako arauzko xedapena indarrean jarri arte luzatuko da. Luzapen hau izaera subsidiarioa duen prestazio ekonomikoen sistemaren ezarpenari lotuta dago eta 3/2015 Legearen laugarren xedapen iragankorraren arabera prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea luketen pertsonen horrelako erregimen eta kontzesio prozedura aldi baterako ezarriko zaizkie.

*Arestian aipatutako arauzko xedapenak indarrean jarri bezain laster eta 18/2008 Legeari dagokionean **Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarriako eskaera berriak onartzeari utziko zaio.***


Edozein kasutan, 2017. urtean zehar etxebizitzarako prestazio ekonomiko horren zenbatekoa 250€koa izango da.”

Hemendik aurrera ea zer gertatzen den ikusi beharko da, baina 2016. urtean zehar Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Gobernuaren partetik EGPO indargabetzeko saiakera bat egon zen jada. Iazko ekainean salatu genuen bezala Etxebizitza Legearen atal askoren zehazgabetasunak, etxebizitza eskubide subjektiboa asetzeko Dekretu (zirriborroa) baten idazketa ekarri zuen. Dekretu honek etxebizitza eskuratzeko bidea erraztu beharrean, gure eskubideak murrizteaz gain behar gehien zuten pertsonen etxebizitza gozatzeko aukerak oztokatzen zituen. Hainbat eragile sozialen presioari esker Dekretuaren zirriborro hori eten egin da.

Etxebizitza Legea onartu zenean, beste gauza batzuen artean, Legeak ez zuela pertsona guztien etxebizitza eskubidea asetzea helburu salatu genuen. Eskubide subjektiboa “mailaz mailako” izaerarekin onartu izanak, etxebizitza baten beharra zuten pertsonen euren eskubide subjektiboa justiziaren aurrean erreklamatzeko ezinezkoa bilakatzen zuen. Inolako diru-sarrerarik ez zuten pertsonen ere ezin izango zuten eskubide hau izan. Gainera, eskubide subjektibo honen mailaz mailako izaerak, etxebizitza bat eskuratzeko baldintzak gogortzen ditu. Horrela, eskatzaileen zerrendan eta Araba, Bizkaia edo Gipuzkoan erroldatuta egon behar diren denbora tarte luzeetan da eta pertsona askok ez dituzten gutxienezko diru-sarrerak baldintza bezala ezartzen dute. Egun jadanik gogorak diren baldintzak zorrotzagoak bihurtzen dituzte.

ETXEBIZITZA BAT ESKURATZEKO BIZITZA TRUKEAN EMAN BEHARRA

Herri honen langileriak dugun eroste ahalmenarekin etxebizitza erostea ezinezkoa da. Horretarako 75 eta 105 urte beharko genituzke. Etxebizitza alokatzea ere ezinezkoa da, hilean gure erosteko ahalmenaren batz bestekoa 385,20€koa izanik, etxebizitza libre bat alokatzeko batz besteko errenta 879,90€tan kokatzen baita 2016ko 4. hiruhilabetekoan.



Nafarroan pertsona bakoitzak etxebizitzara bideratutako diru kopuruaren etengabeko igoera azpimarratzekoa da. Honek 2007tik lau puntu igo ditu ehunekotan hitz eginda. Etxe batean pertsona bakar batek bere aurrekontuaren %47,10a etxebizitzara bideratzen du. Hurrengo koadroan ikus daitekeen moduan, pertsona bakoitzaren urteko gastuen aurrekontua jaitsi bada ere, etxebizitzarako gastua 2007tik 2010era %4,1a igo da.

Pertsona bakoitzeko eta produktu multzoen araberako gastuak:

	2007	2008	2009	2010
Elikadura	2.116,50	2.107,60	2.056,60	1.967,10
Jantziak eta oinetakoak	902,20	879,30	828,00	784,50
Etxebizitza	4.252,50	4.435,80	4.641,00	4.798,70
Osasuna	408,70	444,00	462,60	420,30
Garraioak	2.171,90	2.206,70	1.906,80	2.072,20
Irakaskuntza	122,00	130,50	135,80	149,20

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua (Famili aurrekontuen estatistika 2010)

Babestutako Etxebizitzaren prezioa gora doa:

Tabla 2. Precio medio por m² útil de las viviendas protegidas y libres en venta por tipología y año 2007-2016

(Valores absolutos y variación interanual en %)

Vivienda libre	Nueva Protegida		Nueva Libre		Usada libre	
	Precio m ² útil	Variación interanual	Precio m ² útil	Variación interanual	Precio m ² útil	Variación interanual
Año						
2007	1.322,9	2,9	4.113,2	12,8	4.356,4	2,0
2008	1.372,0	3,7	4.053,8	-1,4	4.199,0	-3,6
2009	1.468,9	7,1	4.032,5	-0,5	3.778,9	-10,0
2010	1.474,3	0,4	3.877,4	-3,8	3.891,0	3,0
2011	1.532,2	3,9	3.769,5	-2,8	3.841,6	-1,3
2012	1.585,4	3,5	3.742,1	-0,7	3.564,7	-7,2
2013	1.625,0	2,5	3.486,2	-6,8	3.171,7	-11,0
2014	1.682,1	3,5	3.338,9	-4,2	3.058,2	-3,6
2015						
I	1.674,3	2,2	3.319,8	-3,4	3.081,9	-0,3
II	1.667,2	0,8	3.296,1	-3,0	3.030,8	-1,1
III	1.657,4	-0,9	3.296,3	-2,0	2.980,0	-2,6
IV	1.674,2	-0,5	3.273,7	-2,0	2.922,9	-4,4
2016						
I	1.702,2	1,7	3.263,9	-1,7	2.866,4	-7,0
II	1.725,8	3,5	3.247,2	-1,5	2.836,4	-6,4
III	1.745,4	5,3	3.188,3	-3,3	2.805,2	-5,9
IV	1.744,1	4,2	3.180,7	-2,8	2.778,9	-4,9
Diferencia 2007-2016	421,1	31,8	-932,5	-22,7	-1.577,5	-36,2

Fuente: Encuesta sobre Oferta Inmobiliaria. 4º trimestre 2016. Dpto. de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda. Gobierno Vasco.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren Higiezin Eskaintza Estatistikan (2016ko 4. hiruhilekoa) Babestutako Etxebizitza eta Etxebizitza Sozialen m2aren prezioak aurreko urteko hiruhileko berdinarekin alderatuta %4,2a igo dela ikus daiteke.

2007-2016 denboraldian etxebizitza libreen prezioak behera egin duen bitartean babestutako etxebizitza berrien m2aren prezioaren igoera nabarmena (+%31,8a) ikusten da. Ondorioz, babestutako etxebizitzen eta etxebizitza libreen prezioen arteko aldea murrizten da. Garai berean, etxebizitza libre berrien eta erabilitako etxebizitza libreen prezioak %22,7a eta %36,2a jaitsi ziren hurrenez hurren.

Bestalde, 2016. urteko 4. hiruhilekoan etxebizitza libreen alokairuaren batz besteko errenta 879,9€koa izan da.

Esan bezala, etxebizitza bat eskuratzeko bizitza osoa eman behar dugu, etxebizitza lortu ala ez.

Eta etorkizunak dakarguna ez da hobea. Azkenengo txostenek berreskuratze bat adierazten dute, hau da, etxebizitzaren prezioaren igoera bat. Izan ere, babestutako etxebizitzaren prezioak ez dio igotzeari utzi. Eta klase politikoak eraikitzaile eta jabetza pribatuari baino mesede egiten ez dion gorakada hori txalotzen du. Eta guzti hau zergatik? Etxebizitza, pertsonen eskubide bat bezala aitortu beharrean, espekulatzeko erabili daiteken ondasuna bezala ikusten dutelako.

INEren datuen arabera, 2007-2016 denbora tartean etxebizitzaren prezioak behera egin badu ere, azkenengo urtean gorakada bat ikusten da. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan prezioa % 1,2a igo da eta Nafarroan %1,9a.

Noticias de Navarra egunkariak (2017ko urtarrila) Iruñean azkenengo urtean etxebizitzaren prezioa %9,27a igo dela dioen berria argitaratu du. Horrela, Nafarroan (2016) metro karratuko batz besteko prezioa 1.540€tan eta Iruñean 1.851,5€tan kokatzen zen.

AGERIKOA DA EGUNGO ETXEBIZITZA POLITIKEN PORROTA

Egoera okerrerantz doa gainera, etxebizitza atalera bideratutako aurrekontuak murriztuz jarraitzen dute, eraikuntza enpresen aldeko negoziaketak eginez (enplegua, prekarioa noski, sortzearen aitzakiapean), alokairuaren pribatizazioa mantenduz, eta egungo etxebizitza hutsen poltsa Alokairuzko etxebizitza parke publikoa osatzera bideratzeko inongo pausurik eman gabe jarraitzen dute.

Hutsik dagoen etxebizitza:

	Etxebizitza hutsak	Azpi-erabilitako etxebizitzak - 2º etxebizitza	Guztira	Etxebizitza azpi-erabilia eta hutsen %
Nafarroa	35.466	25.540	60.006	19,40
Bizkaia	43.704	22.893	66.587	12,48
Gipuzkoa	26.430	14.985	41.415	12,63
Araba	10.869	9.791	20.660	13,27
Hego Euskal Herria	116.469	72.199	188.668	14,22

Iturria: Gaindegia 04/07/2014

Hego Euskal Herrian, 1.326.203 etxebizitzek osatzen dute etxebizitza parkea. Hortik 188.668 etxebizitza hutsik edo azpi-erabiliak daudelarik, %14,22a hain zuzen. Etxebizitza horien optimizazioak eta beharrezana dutenen esku jartzeak, etxebizitzaren arazoa konpondu eta milaka pertsonen egoera dramatikorekin bukatzeko bidea litzateke dudarik gabe. Bide horretan pausurik ez emateak, argi eta garbi adierazten du Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako zein Nafarroako Gobernuak, interes pribatuak

lehenesten dituztela, milaka eta milaka pertsonen duten etxebizitza beharren aurretik.

2015ean Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako gobernuek, Etxebizitzaren Beharren eta Eskariaren Inkesta (EBEI) argitaratu zuen 2015ean. Bertan adierazi bezala, etxebizitza beharrean zeuden 18-44 urte bitartekoak 104.176 ziren. Horietatik 31.340-k ez dute inolako diru-sarrerarik eta 57.191-k diru-sarrera nahikorik ez dute. Hortaz, 18-44 urte bitartekoaren artean 88.531-k, ez dute lehen etxebizitza eskuratzetik izango. GOBERNUEK ASKO DUTE EGITEKO, eta aurkeztutako aurrekontuak ez doaz bide horretatik.

Egungo etxebizitza politiken porrota ez du ELKARTZENek soilik ikusten, aipatutako EBEI-ko ondorengo informazioa nabarmendu nahi dugu:

- *Etxebidek, alokairu eskaera egina zuten familietatik, soilik %17ari eman zien irteera. %17 horretatik, %7,3ak etxebizitza libre eskuratu zuen, **%6,6ak soilik eskuratu zuen BOE (VPO) bat** eta %3,2a kanpora edo bikotearekin bizitzera joanak ziren.*

- *Pertsona eskatzaileek Etxebiderekiko duten ikuspegia gero eta ezkorragoa da.*

- *Azken urteetan jaitsi egin da Etxebiden erroldatutakoen kopurua.*

Zeri dagokio erroldatutakoen jaitsierak? Datuek agerian uzten dute ez dela eskatzaileentzako irtenbidea izan. Izan daiteke erroldatutakoek amaigabeko itxaron zerrendak ezin itxarotea, edota ezin ordaindu ahal izatea ere "babestutako alokairurik".

PREKARIZAZIOARI AURRE EGITEKO, ANTOLAKUNTZA ETA BORROKA BAINO EZ DITUGU

Ikusiko dugunez, datuak izugarriak dira: Azken urteetan gure inguruan etxebizitza eskubidearen urraketa larria ematen ari da. Eskubide urraketa honen ondorioz, bestelako eskubide batzuen urraketa ematen da (osasun arloari, elikadura eta haurren eskubideei dagokiena adibidez). Gogoratu behar dugu, aurrekontuak (politika fiskala eta gastu publikoa) politika ekonomikoaren gakoa direla, ordenamendu ekonomikoa islatzen baitute, nork ordaindu eta nork jasoko duen adieraziz. Urtez urte, Elkartzenean egungo eredu ekonomiko honek, hau da, kapitalismoak, instituzio publikoen bitartez boterea nola eragiten duen salatzen du. Sektore publikoak politika ekonomikoa egiteko dituen tresnak (politika fiskala, aurrekontu politika, lan harremanak, merkatuen erregulazioa...) erabiltzen ditu bere helburuak lortzera bidean, hau da, jendartearen prekarizazioa ondasun pilaketa pribatua handitu asmoz.

2017ko Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako zein Nafarroako aurrekontuek, **ez dute aberastasuna modu orekatuagoan banatuko, ez dira oinarritzko eskubideak bermatuko, ezta kalitatezko zerbitzu publiko eta sozialak bermatuko ere.** Batez ere etxebizitza eskubidearen kasuan; nahiz eta etxebizitza beharra adierazi duten milaka pertsona sektore publikoaren esku hartzerik gabe ez duten etxebizitzarako sarbiderik aukerarik izango, aurrekontuek, sarbide hau bermatzeari uko egiten diote, pribatua lehenetsiz publikoaren aurrean. Hortaz etxebizitza eskubidea, eskubide ukatua da guztiz antisozialak diren aurrekontuak onartzen diren momentuan.

Elkartzenek hainbatetan adierazi izan du etxebizitzaren arazoari eta konponbideari buruzko bere iritzia, esaterako, 2013an Parlamentuko Etxebizitza Komisionan hain zuzen. Baina Elkartzen zein bestelako eragile sozialek egindako proposamenei muzin egiten diete. 2015eko Ekainean, Etxebizitza Legea onartu zen. Alde positiboak baldin baditu ere, esaterako etxebizitza hutsaren penalizazioa (Elkartzenentzako nahiko ez den arren), Lege hau etxebizitzaren arazoari irtenbide integrala ematetik urrun dago. Eraikuntza baimentzen da nahiz eta dagoen etxebizitza hutsekin eskaria asebeteko zen, ez da hutsik dauden etxebizitzaren desjabetzeko aukerarik ematen, etxebizitzaren definizio malgua, alokairuen pribatizazioaren sendotzea, ez da alokairuei mugarik jartzen, e.a.

Are gehiago, gaur egun eta 2008ko Zerbitzu Sozialen Legearen aplikazioa 8 urtetako atzerapenarekin, pertsona orok etxebizitza erabiltzeko dugun eskubide subjektiboa oraindik utopia bat da.

“Gobernatzen gaituztenek”, etxebizitzaren arazoa konpontzeko bidea zein den oso ondo dakite, eta guk, urtez urte errepikatzen darraigu: **etxebizitza eskubide soziala da eta, honenbestez, merkatuaren logikatik kanpo geratu behar du.** Erakundeen politikak errotik aldatu behar dira, jendartearen interesei begira jarriz, interes pribatu eta espekulatuaren mesedetan jarraitu ordez. Etxebizitza politiketara bideratzen den baliabide oro, erabilera sozialeko (alokairu sozialeko) hornikuntza publikora bideratu behar dela esan nahi du horrek. Ezinbestekoa da, etxebizitza, lehentasunezko interes publiko gisa aintzakotzat hartzea eta, hortaz, etxebizitza arloko diru partidak handitzea administrazio desberdinetan, behar errealean neurritan.

Hirigintza basatiarekin bukatu behar da. Gehiago eraikitzeak ez du etxebizitzaren arazoa konpondu, kontrakoa baizik, egungo egoera larria jasatearen arrazoia izan da. Etxebizitza hutsa xahuketa soziala da, ezin baita onargarria izan milaka etxebizitza hutsik egotea milaka pertsonen bizitzeko toki bat behar duten bitartean. Xahuketa ekonomikoa da, milaka eta milaka milioi euroko diru poltsa publikoak jabego pribatuaren babesera bideratzen direlako, frogatu den moduan kasu askotan etxebizitza huts izango direnetara. Xahuketa ekologikoa da neurrigabeko eraikitze politika gure ingurumena erasotzen duelako, eta dagoeneko egindako kaltea atzeraezina delako. Eta lurralde xahuketa da, gure lurra, zorua egiteko ari baikara suntsitzen, gure lurraldea itxuragabetzen eta eraldatzen horretarako beharrik izan gabe.

Etxebizitza hutsak erabili behar dira, beharrezko diren neurriak jarriz helburu horretan. Etxebizitza hutsak Alokairu Sozialeko Etxebizitza Parke Publikoa osatzera igaro behar dira, administrazio publikoak gestionatua izango dena bai, baina jendartearen parte hartzea bermatuz. Eta nahi eta nahi ez, **Alokairuen prezioak mugatu behar dira.** Hau da, gehiegizko muga ipini behar zaie alokairuaren truke kobratzen diren prezioei, bai etxebizitza babestuei, baita merkatu librekoiei ere. Elkartzenen ustez, alokairu prezioek ez lukete errentariaren diru sarreren %15a gainditu behar.

Ezinbestekoa da une honetan geldotasunarekin amaitzea. Etxebizitza lortzeko arazoa kolektiboa da, eta irtenbidea ere modu kolektiboan bilatu behar da. Irtenbidea geure esku dago, antolatzekeo dugun gaitasunean, eta horrek jarrera aktiboa izatea eskatzen du. Antolatzen garen heinean lortuko ditugu emaitzak, baditugu hamaika adibide.

Horregatik guztiagatik eskatzen dugu aurrekontuak egiteko eta erabakiak hartzeko parte hartu ahal izatea, pertsonok ditugun beharriaz erantzuteko moduko aurrekontuak egin ditzagun. Horretarako, antolatu egin behar dugu, borrokatu eta agintariei gogorarazi eskubideak ez direla negoziatzen ezta hitzartzen ere, errespetatu egiten direla eta bitartekoak jartzea dagokiela horiek bermatuak izan daitezten. Beraz, herritar guztioi dei egiten dizuegu mobiliza zaitezten: atera kalera, mobilizatu eta egin borroka. **Aurrekontuak, parte-hartzaileak izan daitezten, aberastasuna bana dezaten eta etxebizitza duin baterako sarbidea eta erabilera bermatu dezaten.**

BORROKATU ZURE ESKUBIDEEN ALDE!

EGIN AURRE PREKARIETATEARI!

JENDARTEA ERALDATU!

Euskal Herrian, 2017-04-03